

## FUNTSEZKO JARDUERAK

Bi oinarrizko jarduera izango ditugu, batetik poltsen diseinua eta patroiak egitea, bestetik, jostea izango da. Horretara lokal bat hartuko da, bertan josteko makinak jarri. Hasiera batean proiektua aurrera eramaten ari direnen artean burutuko da funtsezko jarduera, beti ere gure kostuak minimoak izatearren.

Diseinuaren eginkizunari dagokionez, lokalean gela egokitu bat jarriko da bertan diseinatzaile trebe batek lan egin dezan. Lan hau taldeko inorrek burutzeko gaitasuna ez duenez, norbait kontrata beharko litzateke.